

IKT sektoreak 22.387 pertsonari eman zien lana 2017an, aurreko urtean baino % 3,5 gehiagori, alegia

IKT sektoreko enpresen % 63,6 merkataritza elektronikoa aritu ziren; sektore guztiak aintzat hartuta % 25,1

2017an Euskal AEn gora egin zuten bai enpresa-kopuruak bai enplegu okupatuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektorean (IKT): % 1,8 (47 enpresa gehiago) eta % 3,5 (765 okupatu gehiago), hurrenez hurren, EUSTATen datuen arabera. Zehazki, 2.648 enpresa eta 22.387 lanpostu zenbatu ziren sektorean, eta enpresaren batez besteko tamaina 8,5 pertsonakoa izan zen. Negozio-zifrak ere % 8,8 egin zuen gora, eta balio erantsiak % 4,3.

Datuak horiek izanik, IKT sektorean Euskal AEko ekonomiako okupatuena % 2,1 aritu ziren, eta sektorea balio erantsiaren guztizkoaren % 2,2 izan zen, 1.613,3 milioi eurokoa, alegia, eta negozio-zifra 3.878,5 milioikoa.

IKT sektorearen magnitude nagusiak, lurralde-eremuaren eta jarduera-sektorearen arabera. 2017

	Enpresa kopurua (1)	Landun kopurua (2)	Negozio kopurua (3)	Balio erantsi gordina cf (3)
IKT sektorea guztira	2.648	22.387	3.878.489	1.613.316
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	345	2.601	410.136	149.589
Bizkaia	1.578	12.766	2.453.825	1.039.557
Gipuzkoa	794	7.020	1.014.528	424.170
IKT manufaktura-industria	70	4.396	569.895	194.300
Merkataritza eta IKT Zerbitzuak (p)	2.578	17.991	3.308.594	1.419.016

(1) Enpresa-kopuruaren lurralde-batura ez dator bat guztizkoarekin.

Jarduera duten lurralde historiko bakoitzean behin zenbatu dira, eta EAE osoan behin bakarrik.

(2) Lanpostuak

(3) Milaka eurotan


(p) Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT

IKT sektorean, gainerakoetan baino I+G+b jarduera gehiago

IKT sektoreko enpresen % 5,9k egin zituzten barne I+G jarduerak, eta ehuneko horrek larregi gaintzen du sektoreen guztizkoa, % 1,0ekoa izan baitzen. Gainera, IKT sektorean biltzen dira, Euskal AEko enpresa guztien % 1,8 bakarrik izanik, I+G egiten dutenen % 11,1, eta, gainera, enpresa-sektoreko barne I+Gko gastu osoaren % 7,1 exekutatu du (72,8 milioi euro). Horrek esan nahi du 2016an egindako gastu osoari dagokionez, bi hamarren egin duela gora garrantzian.

Sektorean 2017an 1.288 langile aritu ziren I+Gn "lanaldi osoaren balio beraz", eta horietatik % 22,9 (295) emakumeak izan ziren. I+G jarduerak egiten dituen enpresa-sektoreko langileen % 9,8 IKT sektoreko enpresetan daude; ehuneko hori txikiagoa da (% 6,9) ekonomia osoarekin alderatzen badugu.

I+G+b IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietako enpresetan (%). 2017


Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT

Berrikuntzari dagokionez, I+Gn bezala, alde nabarmenak ikusten dira sektoreen guztizkoaren eta IKT sektorearen artean. Horrela, 2017an IKT sektoreko establezimenduen % 35,0 izan ziren berritzaileak, eta sektoreen guztizkoa kontuan hartuta % 10,9. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 langile edo gehiago dituztenen kasuan % 53,8 izan ziren berritzaileak, eta sektoreen guztizkoa kontuan hartuta % 27,3.

Berrikuntza-jardueretan egindako gastuari dagokionez, IKT establezimenduek 148,8 milioi euro bideratu zituzten berrikuntza-jardueretara, sektoreen guztizkoren gastuaren % 5,6. Gastu horretatik 128,1 milioi 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduek gastatu zituzten, eta tamaina horretako enpresek guztira gastatutakoaren % 5,7 da.

IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2017

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+G intentsitatea (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+G intentsitatea (2)
Sektoreak guztira	1,56	0,80	2,04	1,15
IKT sektorea guztira	2,75	1,52	2,79	1,77
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	3,15	0,78	1,34	1,02
Bizkaia	2,17	1,19	2,37	1,30
Gipuzkoa	4,23	2,87	4,95	3,79
IKT manufaktura-industria	4,45	3,64	4,56	3,75
Merkataritza eta IKT Zerbitzuak (p)	2,48	1,18	2,46	1,40

(1) Berrikuntzaren intentsitatea: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100

(2) Barruko I+G intentsitatea: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

(p) Behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT


IKT sektorean gainerako sektoreetan baino baliabide gehiago bideratu ziren proportzioan I+G+b jardueretara, halaxe adierazten dute berrikuntzako eta I+G jardueretako gastura bideratzen dituen zifrek negozio-zifrarekin alderatuta (barne-berrikuntzako eta barne I+Gko intentsitate-ratioak). Berrikuntzaren intentsitatea 2,8koa

da sektorean, eta 1,6koa sektore ekonomikoen guztizkoan. Barne I+Gren kasuan, ratioa 1,5ekoa da IKT sektorean eta 0,8koa guztizkoan. Bi kasuetan intentsitateak behera egin du aurreko urtearekin alderatuta; lehenengo kasuan beheraldia portzentajezko 1,58 puntukoa da eta bigarren kasuan 0,32koa.

Merkataritza elektronikoa IKT sektorean zabalduago dago sektoreen guztizkoan baino

IKT teknologien erabilera oso zabaldua dago sektore honetako enpresetan, baina merkataritza elektronikoaren ezarpena, gainerako sektoreetako baino handiagoa bada ere, apalagoa da, batez ere salmenten aldetik. Bide horren bitartez erosketak egin zituzten establezimenduak % 63,2 izan ziren IKT sektorean, eta salmentak egin zituztenak, berriz, % 14,1; sektoreen guztizkoan, % 23,0 eta % 6,8 izanik, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du merkataritza elektronikoa IKT establezimenduen % 63,6k erabiltzen dutela, ehuneko hori 2016an baino 4,9 puntu txikiagoa izanik, eta sektoreen guztizkoan, berriz, % 25,1ek erabiltzen du, eta ehunekoa aurreko urtean baino 0,9 da txikiagoa.

IKT teknologien erabilera (%). 2017



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT


Bestalde, IKT sektoreak ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua berriz ere. Esportazioak 320,0 milioi eurokoak izan ziren, guztizko zifra 24.109,9 milioikoa izanik; inportazioak 463,4 milioikoak izan ziren, guztizko zifra 18.707,9 milioikoa izanik. Hori % 1,3 eta % 2,5 da, hurrenez hurren.

Truke horietan produkturik ohikoenak, esportazioetan, honakoak dira: *Osagai elektronikoak* (% 39,2) eta *Beste IKT produktu batzuk* (% 35,1). Inportazioetan, berriz, beste hauek: *Beste IKT produktu batzuk* (% 36,7), *Osagai elektronikoak* (% 23,2) eta *Telekomunikazio-ekipoak* (% 21,5).

Euskal AEko IKT sektoreko enpresek Espainia osokoek baino neurri handiagoan dute webgunea eta banda zabala, baina gutxiago erabiltzen dute merkataritza elektronikoa

Azkenik, Euskal AEko IKT sektoreko eta Espainia osoko sektoreko 10 langile edo gehiagoko enpresen datuak alderatzen badira, ikusten da bi kasuetan % 100ek dutela Internet konexioa. Webgunea edo banda zabala izateari dagokionez, ehunekoak zertxobait hobeak dira Euskal AEn Espainia osoan baino, % 98,9 eta % 96,8, hurrenez hurren, webgunearen kasuan eta % 100 eta % 97,4 banda zabalaren kasuan. Erosketa nahiz salmenta elektronikoen kasuan, aldiz, Espainia osoko datuak hobeak dira: erosketen kasuan % 60,2, Euskal AEn % 55,4 izanik; eta salmenten kasuan % 23,4 eta Euskal AEn % 17,3.

IKT sektoreko 10 langile eta gehiagoko enpresak (%). 2017



Iturria: Eustat eta EIN

Ohar metodologikoa:

IKT sektorea osatzen dute jarduera nagusia informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena, ekoizpena, merkaturatzea eta erabilera intentsiboa duten manufaktura- eta zerbitzuetako sektoreek, eta jarduera horrek berrikuntza, aurrerapen teknologiko eta produktibitate tasa handiak izaten ditu eta jarduera ekonomikoan, beraz, inpaktu esanguratsua izaten du. [Web Eustat. Fitxa metodologikoa: IKT Sektorea](#)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62